

MELOI SALTZAILEA

Duintasuna



JUNE FERNANDEZ

Langabezia geratu nintzen 24 urterekin, eta eza-gun batek lan xelebrea eskaini zidan: ezkondu aurreko *despedidak* antolatzea. Logroñoko bere enpresa hedatu nahi zuen beste hiriburuetara, tartean Bilbora. Ezkongaien lagunak deia jasotzen nituen, eta askotariko jarduerak eskaintzen eta kudeatzen nizkien: *spa*, *paintball* edo tirolina, eta ondoren afaria *show* batekin, izan *drag queenak* edo *stripperrak*.

Dilema etiko bat izan nuen lan horretan: *stripper* nanoen zerbitzua eskaini ala ez. Aukera eskandalagarria iruditzen zitzaidan, baina nor nintzen ni Bilboko *stripper* nanoen lan aukerak murrizteko, nire moralaren izenean? Mila buelta eman nizkion auziari, eta azkenean errailetatik erabaki nuen: ez nengoen bufoi dinamika kapazitista hori errazteko prest. Dena den, pare bat hilabete baino ez nituen iraun lan horretan.

Pasadizoa gogoratu dut Lamine Yamal futbolariaren 18. urtebetetze festaren harira. Zalaparta handia sortu du bere lagunak "irudi-neskak" eta nanismoa duten pertsonak kontratatu zituztelako jai pribatua girotzeko. Espainiako komunikatzaile feminista abolizionista zuriek salatu dute "irudi-neskena" (irakurri, adibidez, Ana Bernal-Triviñoren artikulua *Público* egunkarian). Akondroplasia eta bestelako displasia eskeletikoak dituzten pertsonen elkarteak iragarri du epaitegietara joko duela, "desgaitasuna duten pertsonen duintasuna babesteko". Adierazi dute nanoak entretenimendurako kontratatzea "funtsezko balore etikoak" urratzen dituela.

Aldiz, festan parte hartu zuen batek adierazi du oso gustura egon zela, ez zutela modu iraingarri batean tratatu eta duintasuna dela "ahots propioa, irizpide propioa eta gure bizitza pertsonalari eta profesionalari buruz erabakitze gaitasuna" izatea.

Askatasuna edo diskriminazio estrukturala? Eztabaidarako baliogarriak dira Amelia Barquín azalpenak Arrigorriagako jai batzordeak Vulkano orkestra festa-egitarautik kentzearen erabakiari buruzko ARGIAko erreportajea. Nik, nire estiloan, erdibideko iritzia daukat: ezin ditugu botere dinamikak irauli subjektuen agentzia ukatuz.

Edonola ere, onartu behar dizuet duintasunari lotutako kezka premiazoagoak ditudala: sindikalismoa egiteagatik kartzelaratuak dauden Asturiasko langileak (La Suizako seiak), pertsona arrazializatuen kontrako ehizak, eta Gazako herritarren gosetea. Halakoak lehenesten ez dituen feminismoa ez da nire feminismoa. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

